

Azterketako ariketa: Jardunaldi bateko kiniela

Jardunaldi bateko futbol-kiniela asmatu den jakiteko programa bat **diseinatu eta implementatu**. Kiniela bat 14 partiduz osatzen da. Partidu bakoitzarentzat balio bakarra eman daiteke **1, X** edo **2**. 1: etxean irabazi, X: berdinketa eta 2: kanpoan irabazi. Programak ondorengo menuan 7 aukera ematen dizkio erabiltzaileari:

1. Jardunaldiko partiduak sartu
2. Apustua egin
3. Emaita sartu
4. Informazio guztia pantailaratu (adibidean bezala)
5. Zenbat asmatu diren esan
6. Estadistikak: etxean eta kanpoan zenbatek irabazi duten eta zenbat berdinketa diren
7. Irten

Erabiltzaileak datuak gaizki eman ezkerro berriro eskatu ondo sartu arte. Egindako programak edozein jardunalditarako balio behar du. Hona hemen adibide bat:

Adibidea:

	Jardunaldia	Apustua	Emaita
1	Betis – Valladolid	1	1
2	R. Sociedad – Malaga	1	X
3	Murcia – R. Madrid	2	1
4	Mallorca – Espanyol	X	1
5	Deportivo – Celta	1	1
6	Barcelona – Racing	1	1
7	At. Madrid – Zaragoza	X	2
8	Osasuna – Athletic	X	2
9	Albacete – Sevilla	1	2
10	Recreativo – Ejido	1	1
11	Alavés – Rayo	1	1
12	Almería – Numancia	2	X
13	Cádiz – Las Palmas	2	1
14	Salamanca – Levante	X	2

Programaren portaerak:

▪ Jardunaldiko partiduak sartzean:
Adib: 11. partidua: **Alavés – Rayo**

▪ Apustua egitean:
Adib: 11. Alavés – Rayo: **1**

▪ Emaita sartzean:
Adib: 11. Alavés – Rayo: **1**

Emaitzak:

▪ Asmatu kopurua: **5**


▪ Estadistikak:
8 ekipok etxean irabazi dute
4 ekipok kanpoan irabazi dute
2 berdinketa izan dira

▪ **Nota:** Pantailan idazteko garaian karaktere bereziak erabil daitezke:

1. **vbTab** → Tabuladorea idazteko

2. **vbCrLf** → Lerro saltoa egiteko

Adibidez: MsgBox (**vbTab** & “1. Lehenengo lerroa” & **vbCrLf** & _
vbTab & “2. Bigarren lerroa” & **vbCrLf** & ...)



▪ **Gehigarriak:**

1. Zer egin edo aldatuko zenuke, programa hasten den bakoitzean jardunaldi honetako partiduak automatikoki kargatzeko?

2. Lehen egin ditugun azpiprograma gehienak berrerabiliz, diseinatu Visual Basic-en beste programa bat ondorengo portaera duena: Ez du menurik erakusten, datu guztiak **beti** bistaratuta daude (adibidean bezala), datuak **bertan aldatu** daitezke eta 5., 6. eta 7. aukerentzako botoi bana ipini.